



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

KIMIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE QUÍMICA



KIMIKA FAKULTATEA

Kimika

www.ehu.eus

Kimika Fakultatea




Kimika_6. or.

Deskubritu kimika inguratzen gaituen guztian

UPV/EHUko Kimika Fakultatea 1975ean sortu zen, profesionalen prestakuntzan eta ikerketan erreferente bilakatzeko asmoz, bereziki material polimerikoen arloan. Gaur egun Ibaetako Campusean dago kokatuta, eta bertan egindako jarduera akademikoak eta ikerketek Kimikaren diziplina tradizionalak eta haien aplikazioak biltzen dituzte (K. Fisikoa, K. Analitikoa, K. Organikoa, K. Inorganikoa, Biokimika, Ingeniaritza Kimikoa, Polimeroen Kimika, Ingurugiroaren Zientziak), baita horiei lotutako beste batzuk ere.

Ikerketaren arloan, Kimika Fakultatea zientzia sortzaile garrantzitsu bat da, eta urtean 200 argitalpen zientifiko kaleratzen ditu batez beste. Hori dela eta, nazioartean ikusgarritasun handiena duen Euskadiko I+G+B eragileetako bat gara.



FAKULTATEA ZENBAKITAN

1

gradu
titulu

4

doktorego
programa

2

nazioarteko
titulu bikoitz

96

hitzarmen
dauzkagu
gure ikasleen
mugikortasunerako

3

master

+100

hitzarmen
enprekin
(unibertsitate
praktikak)



Kimika Fakultatea
Manuel Lardizabal pas. 3
20018 Donostia

943 018 171
kimika.fak.dekano@ehu.eus
www.ehu.eus/eu/web/kimika-fakultatea



IRAKASKUNTZA ELEANIZTUNA

Derrigorrezko irakasgai guztiak euskaraz eta gaztelaniaz, eta horietako batzuk ingelesez.


UNIBERTSITATEKO PRAKTIKAK

Borondatezko praktikak enpresa eta erakundeetan: 120 kreditu gainditu ondoren.

GRADU AMAIERAKO LANA

Gratu Amaierako Lana, nagusiki esperimental, fakultateko laborategietan, ikerketa zentroetan edo fakultatearekin akordioa duten enpresetan egin daitekeena.

NON EMATEN DIRA GURE GRADUAK?



Bizi Gipuzkoako Campusa!



+10.000 ikasle



9 ikastegi



1 unibertsitate
egoitza

Ostatu zerbitzua:
ostatua aurkitzen
lagunduko dizugu



3 biblioteka



Kultura, musika eta
arte jarduerak



1 kiroldegi
Itunpeko kirol
zentroak



Ikasi hizkuntzak
Hizkuntza
egiaztagiriak



Enplegu Gunea

KIMIKAKO GRADUA



Jakintza adarra: Zientziak

Kimika, seguruenik, azken hamarkadetakoko gure gizarte ongizateari eta bizi kalitateari ekarpenik handiena egin dion zientzia da. Gure bizitzako alor guzti-guztietan aurki dezakegu: ingurumenean, osasunean, energian, elikadura industrian, farmazeutikoan, material berrietan, eta abar. Gure inguruan guztia kimika dela esan genezake ia-ia, jaten eta edaten dugunetik hasita, gure jantzietara, baita sendatzen gaituen horretara ere.

Kimikako Graduan materiaren konposizio, sintesi, propietate, portaera eta erreaktibotasunarekin loturiko alderdiak ikasteaz gain, zeure eskuekin esperimentatu eta aztertu ahalko duzu. Titulazioaren esperimentaltasun maila % 30ekoa da, eta horri gradu amaierako lana eta borondatezko kanpoko praktikak batu behar zaizkio.

Honako aipamen edo ibilbide hauetan espezializatu ahalko zara: "Makromolekulak" eta "Kimika eta Biozientziak".

Bestalde, Université de Strasbourg-ekin (Frantzia) eta Université de Bordeaux-ekin (Frantzia) titulazio bikoitza lortzeko aukera izango duzu.

Behatzeko eta aztertzeko gaitasuna baduzu, esperimentazioagatiko eta eskulanagatiko interesa, ingelesa hitz egiten baduzu, matematika, fisika eta kimika ezagutzak badituzu, eta gainera bakarka zein taldean lan egiteko gogoia baduzu, seguru Kimikako Gradua gustuko izango duzula.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

- Kimikaren alderdi teorikoak eta praktikoak ulertzeko.
- Material kimikoak segurtasunez manipulatzeko, eta substantzia kimikoak eta laborategiko prozedurak erabiltzerakoan arriskuak antzeman eta balioesteko.
- Emaizta esperimentalak eta informazio zientifikoa aztertu eta interpretatzeko, ondoren erabakiak hartu ahal izateko.
- Kimikako proiektuak planifikatu, garatu, kudeatu eta kontrolatzeko.
- Ikerketa lanetan hasi eta ingurune berrietan lan egiteko trebeziak garatzeko.

Irteera profesionalak:

Kimikako profesionalak behar-beharrezkoak dira hainbat arlotan:

- Ikerketa (I+G+B): erakunde publikoak eta pribatuak
- Industria: elikadura, metalurgia, polimeroak, hondakinen tratamendua, lurringintza eta kosmetika, farmazeutika, nanomaterialak, elektrokimika, biokimika klinikoa, mikrobiologia, findegiak, eta abar.
- Administrazio publikoak: ospitaleak, laborategiak, dopin kontrola, uren analisisa, aduanak...
- Nekazaritzako Kimikari aplikaturiko teknologia berriak, material berriak, energia iturri berriak, ingurumenaren kontserbazioa, birziklatze plantak...
- Irakaskuntza hezkuntza maila guztietan.

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA oinarrizko 60 kreditu

Urtekoa

- Fisika

1. lauhilekoa

- Geologia
- Kimika Orokorra I
- Laborategiko Oinarrizko Eragiketak
- Matematika I

2. lauhilekoa

- Biologia
 - Kimika Orokorra II
 - Matematika II eta Estatistika
 - Metodologia Esperimentala Kimikan
-

BIGARREN MAILA nahitaezko 60 kreditu

Urtekoa

- Biokimika
- Esperimentazioa Kimika Ez-Organikoan
- Esperimentazioa Kimika Fisikoan
- Esperimentazioa Kimika Organikoan

- Kimika Analitikoa I
 - Kimika Ez-Organikoa I
 - Kimika Fisikoa I
 - Kimika Organikoa I
-

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 48 kreditu + hautazko 12 kreditu)

Urtekoa

- Esperimentazioa Kimika Analitikoan
- Ingeniaritza Kimikoa
- Kimika Analitikoa II

- Kimika Ez-Organikoa II
 - Kimika Fisikoa II
 - Kimika Organikoa II
-

Hautazkoak

Urtekoa

- Konposatu Organikoen Identifikazio Espektrofotometrikoa

1. lauhilekoa

- Idatzizko komunikazio zientifiko-teknikoa euskaraz

2. lauhilekoa

- Ahozko komunikazio zientifiko-teknikoa euskaraz
 - Kimikarako Metodo Matematikoa
-

LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 12 kreditu + hautazko 30 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 18 kreditu)

Urtekoa

- Industria Kimikoko Proiektuak
- GRADU AMAIERAKO LANA

1. lauhilekoa

- Materialen Zientzia

2. lauhilekoa

Hautazkoak

Urtekoa

- Biozientzietako Problema Analitikoaren Ebazpena (2A)
- Katalisia eta Bioorganometalikoak (2A)

1. lauhilekoa

- Makromolekulen Karakterizazio Kimikoa eta Fisikoa (1A)
- Makromolekulen Kimika (1A)
- Material Makromolekularrak I: Propietateak eta Aplikazioak (1A)
- Kimika Biologiko Aplikatua (2A)

2. lauhilekoa

- Material Makromolekularrak II: Prozesaketa (1A)
 - Polimerizazio Prozesuak Industrian (1A)
 - Ingurumenaren Kimika eta Teknologia (2A)
 - Sintesi Organikoa eta Biomolekulak (2A)
-

AIPAMENAK

- Makromolekulak (1A)
- Kimika eta Biozientziak (2A)



UPV/EHUren GRADUONDOKOEN ESKAINZA

Zure gradu-ikasketak amaitu ondoren, zure prestakuntza osatu ahal izango duzu graduondoko batekin. UPV/EHUK graduondoko 150 programa baino gehiago eskaintzen ditu zure etorkizun profesionala garatu nahi duzun alorrean espezializatu zaitez.



Gure unibertsitateko masterrak eta berezko tituluak hemen kontsulta ditzakezu: www.ehu.eus/eu/web/masterrak-eta-graduondokoak

Eskerrik asko Euskal Herriko Unibertsitatea aukeratzeagatik. Itxaroten dizugu.

Liburuxka hau informazioa emateko baino ez da.
Azken eguneraketa: 2024ko abendua.